

Aportazioak: hitzarmen integratzailea

FORU erakundeek EAEko Gobernuari 1997-2001 bosturtekoan egin beharreko aportazioen kalkulua eredu hitzartua dute Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak. Herritarrek zergen bidez ordaintzen duten dirua erakundeen artean banatzeko irizpideak finkatzea da lege honen helburua. Hitzarmena —seguruenera Eusko Legebiltzarraren onespina jasoko du urriaren 31n— garrantzitsua izan da, hiru erakunderen xedeak (zilegizkoak denak) bildu baititu: gobernu, diputazio eta udalenak.

Gogoratzekoa da Estatuaren eta Euskal Autonomi Elkartearen arteko Kontzertu Ekonomikoak Diputazioen esku uzten duela zerga gehienak biltzeko ahalmena, bakoitzari bere herrialdean. Badira beste zerga batzuk (alkoola, hidrokarburua eta tabakoaren gainekoak, besteak beste) oraindik ere Estatuak biltzen dituenak. Diputazioetako diru sarrerak, berriz, Estatuari kupoa ordaintzeko eta Eusko Jaurlaritza, Aldundi eta Udalen gastueta-rako erabiltzen dira.

LURRALDE Historikoen Legeak zehazten du nola banatu behar diren diru eta eskumenak Jaurlaritza eta Aldundien artean. Euskal Finantza Kontseiluaren esku jarria du lege honexek foru eta autonomi mailako erakundeen arteko diru banaketa edo aportazioak onartzea. Eusko Jaurlaritza gerora baietsitako legean ageri da itun hau. Hau da, diru edo baliabide ekonomikoaren banaketa zuzena eta justua egiten da erakunde bakoitzak ordain ahal ditzan herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak.

Azken bost urteotako finantzaketa sistemari ez dio sakoneko aldaketarik eragin Eusko Legebiltzarreko azkeneko hitzarmenak, 1997-2001 tarteko aportazioei dagokienez. Aldaketa tekniko batzuk erantsi zaizkio sistemari hainbat disfuntzio zuzentzeko asmoz eta, bidenabar, diru pu-



JUAN JOSE IBARRETXE

Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordea,

blikoaren erabilera orekatua eta justiziazkoa ziurtatzeko.

Lege proiektuaren nobedadea elkartasun fondoarena da eta honen helburua, berriz, lurralde historikotako zerga bilketan sor litezken balizko desorekak zuzentzea. Beraz, nolabaiteko desdoikuntzarik sortuz gero herrialde bakoitzak bere aportazio koefizientearen % 99aren adinako baliabideak izango ditu, horixe bermatzen du hitzarmenak. Bestalde, elkartasun fondoaren eginkizuna honako hau izango da: gerora sor litezkeen aparteko egoerei aurre egitea. Aurrikuspen sistemak ezarri beharra dakar honek guztiak, zergen inguruko legedian aldaketarik izanez gero (edo lege berririk) lurraldeen arteko ezberdintasunik izan ez dadin dirua banatzerakoan.

FORU Aldundi bakoitzak Eusko Jaurlaritza ematen dion diruaren koefiziente

kalkuluaren sistema sendotzen du, bestetik, lege berriak. Herrialde bakoitzaren aportazioa bere egoera sozioekonomikoaren arabera izango dela ziurtatzen du, alegia.

Koefiziente horizontalen kalkulua eriteko irizpide berria hauxe izango da: azken lau urteetako Barne Produktu Gordina kontuan hartzea —Eustatek eskaintako datuen arabera— lurralde bakoitzaren errenta erlatiboa kalkulatzeko. Eta adierazle ekonomiko berriak, lurraldeen zerga bilketa ahalmena neurtzeko.

Udal finantzaketari dagokionez, hauxe gomendatzen die legeak Foru Aldundiei: bere baliabideen % 53, gutxienez, beren baitako udalentzat izatea. Aurreko legeak % 50 gomendatzen zuen. Inbertsio proiektu berezien finantzaketa ere aipatzen da lege honetan, beti ere Euskadiren garapen eta zuzperzte ekonomikoaren bidean. Autonomi, foru eta udal mailako erakundeen atxikimendua beharko dute proiektu hauek.

AZPIMARRATZEKOA da aportazioen inguruko testu berriak etorkizun ekonomiko-finantziero sendoa aurrikustea diela EAEko erakundeci. Honenbestez, aportazioen inguruko hitzarmena onerako izan delakoan nago, alde guztien ikuspuntuak jaso baititu; zuhurra da, Europar ekonomia eta zerga alorretan izango diren aldaketak aurrikusten dituelako; eta, azkenik, orekatua, erakundeek gai honetaz zituzten irizpideak bildu ditu eta. Ez da inongo sekretua Aportazio Legearen inguruko adostasuna gauzatzeko negoziazioak ez direla errazak izan. Eusko Jaurlaritzan beti uste izan dugu denek jarraitu elkarrekin egin behar direla, denak baitira zilegi. Uste izan dugu, eta dugu, orekaz eraiki behar dela gure herri hau. Eta desorekak, aitzitik, haustura besterik ez dakarrela.